

Nafarkaria

• ostirala • 1998ko urriaren 23a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Doneztebe • Euskalkiak eta euskara batua aztergai izanen dira Ttipi-ttaparen jardunaldietan.

Josetxo Goia-Arribere • «'Eunate' oso bat-batekoa izan da».

Trenaren iraganeko ibilerak



• JAVIERCEJUELA

'Nafarroa eta trena', herrialdeko trenaren historia bildu duen liburua, kaleratu berri du Juan Jose Martinenak, Nafarroako Artxibategi Orokorreko zuzendariak. Burnizko sugearen historia 1857an hasi zen eta, garai onak ezagutu bazituen ere, egun trenbide zabaleko bideak bakarrik geratzen dira. Trenbide meharreko seiak desagertu dira. Iraganari nostalgiarekin begiratzen diotenendako lekukoa da lana.



Doneztebe ●

Euskara aztergai

Euskalkiak eta euskara batua aztergai izanen dira Ttipi-ttaparen jardunaldietan

Aldizkari eta telebistaz gain, Doneztebe-ko Jaunsenean jardunaldiak egingen ditu bihar hasi eta lau larunbatez fundazioak. Batuaren eta euskalkien arteko oreka, erabilera, lexikoa, erranerak eta joskerak aztertuko dira bertzeak bertze.



Ttipi-ttapa hamabostekariaren erredakzioa, Berako herriko etxean.

● LUIS AZANZA

ORAIN ARTE BERE ZEREGINA komunikabideetara mugatu badu ere, jardunaldi hauen antolatzearekin urrats berri bat eman nahi du Ttipi-ttapa fundazioak. Euskara batu osoagoa egiteko herri-hizkeraren garrantzia azpimarratu nahi dute jardunaldi hauen bidez Ttipi-ttapakoek. Euskalki eta euskara batuari buruzko jardunaldi hauek komunikabideetan, irakaskuntzan eta administrazioan aritzen direnentzat pentsatu dituzte bereziki. Lau saiotan ponentzia bana aurkeztuko bada ere, eztabaidarako tarreak zabalduko dituzte antolatzaileek.

Lehenbiziko saioa bihar izanen da. Paxkual Rekalde filologoak «Bilakera historikoa. Euskalkien eta batuaren erabil esparruak gaur egun» gaia jorratuko du.

Bigarren solasaldian, Paxkual Rekalderekin batera Patxi Iñigo arituko da. Eremuko euskalkiaren lexikoa, erranerak eta joskerak aztertuko dituzte. Patxi Iñigo

filologoa Iruñako Hizkuntz Eskolako irakaslea da.

Azken bi saioetan, azaroaren 7 eta 14ean egingen direnak, mahainguruak antolatu dituzte. Lehenbizikoan euskalkiak eta euskara batua irakaskuntzan hartuko dute hizpide Xabiler Ballarena Baztango Eskola Unitarioko kideak; Miguel Asiain IBIko kideak, Maria Jesus Perurena Doneztebe-ko eskolako irakasleak eta Kontxi Erro Tantarumairu ikastolako irakasleak. Moderatzaile lanetan Pello Apezetxea Ttipi-ttapako kideak jardungo du.

Azken solasaldia komunikabideetara bideratutakoa izanen da. Xorroxin Irratiko, Xalao telebistako eta Ttipi-ttapako kideak mintzatuko dira, eta Patxi Petrirena *Egunkariko* hizkuntz zuzen-

tzailea moderatzaile lanetan ariko da.

Kezka bizirik

Euskararen normalkuntzan lan egiteko fundazioa da Ttipi-ttapa. Komunikabideetan aritu da orain arte, 1982an aldizkaria sortu baitzen, eta aurten telebista paratu dute abian. Fundazioa bera ere berriki sortu da. Komunikabideei babesa emateko sortu bada ere, hizkuntzaren kalitateaz kezkatu-rik antolatu dituzte jardunaldiak. Euskara batua eta euskalkia zer diren bereiztea beharrezkoa ikusi dute, eta bien izaera eta harremanak hobeki ikusten laguntzeko saiakera hau prestatu dute.

Herri hizkeren aberastasuna mantendu beharrez jabetuta prestatu dituzte jardunaldiok,

Nafarroan euskara bizien dagoen eskualde guztira hedatzen baita Ttipi-ttaparen jarduna, hots, Bortziriak, Malerreka, Baztan eta Leitza aldera.

Komunikabideek eta irakaskuntzak protagonismoa hartu izanaren arrazoi nagusia hauen eguneroko lanean hizkuntzak duen garrantzia izan da. Hainbat galdera plazaratu nahi dituzte, bertzeak bertze. irakasleak haurrei beren herri-hizkuntzan egiteko gai ote diren, kazetariak ikusentzuleen herri-hizkeran aritzeko prestatuak ote dauden, euskara batuaren arauak erabiltzeko jantziak daudenez eta euskalkiak eta euskara batua erabiltzeko irizpiderik baote duten.

→ Jon Abril

Bera

Lurraren Eguna egingen da igandean

ESKUALDEAN EGITEN DEN artisautza azokarik garrantzitsuenaren txanda izanen da igande honetan Beran, Lurraren Egunean. Goizeko 10:30etan emanen zaio hasiera Altzateko karrikan, eskulangileen eta barazki erakusketarekin.

Joan den urtean bezala, aurten ere inguruko base-rietako sagardoa emanen da dastatzera. Goizeko 11:00etan berako trikitilariak eta musika eskolako txistulariak ariko dira Altzate karrikan barna giroa alaitzen, eta ordu bat beranduago, eguerdian, Berako bandak eta Gure Txokoa dantza taldeak euren emanaldiak emanen dituzte. 13:00etan, Irats dantza taldeak emanaldia eskainiko du. Arratsaldean, taloak, sagardoa eta gaztainak probatu ahal izanen dira. 17:00etan akordeolariak aterako dira, eta ondotik gazta lehiaketako sari banaketa eta enkantea egingen da. Eguna bukatzeko, Izotz taldearekin dantzaldia izanen da Altzateko plazan.

Halaber, Tolosako abesbatzen lehiaketara etorritako abesbatzetako batek kantaldia eskainiko du kultur etxean. Aurten Filipen-tako Los Baños Choral Ensemble taldea ariko da 19:00etatik aitzinera.

Gure Txokoak antolatzen duen besta egun honetan Labiaga ikastolak, Ricardo Baroja Eskolak, Jesusen Bihotza ikastetxeak, Erausian euskara taldeak eta Bortzirietako euskaltegiak bere laguntza eskaini dute.

→ Jon Abril

mapa mutuak

PELLO LIZARRALDE



Muino eta haitzetara igotzen ziren, tramankulua arrastaka. Ez zuten ez lurrera ez zerura begirutzen. Haien begiak beti airean egon omen den lerro horretan jarririk zeuden, birrikak eta bihotza betetzen dituen puntu ikustezinaren bila. Gero jautzia izatea zen. Ehundaka kaierra eta liburu utzi zuten. Orrialde horitutan geratu ziren betiko: milaka ohar, zirriborro, dibujo eta hitz. Eta hegala, jori, amets adina hegal, ikatzez eginak.

Ondorengoek, balentria haien berri izanik oroi-tarriak eta gurutze soilak eraiki zituzten gailur edota mendi hegaletan. Ametsaren, eldarnioaren, ero-menaren eta utopikoaren sinbolo bihurtu ziren askorentzat. Irribarren egin ohi da gogoratzen ditugunean.

Alferrik ari zen eta ariko da beti gizakia. Aeroplanoa, autogiroa eta boeing-a. Berdin dio. Kanta eta filme askok gogoratu digun bezala hegan egitea

Volare, oh, oh!

hegaztien kontua da, eta-abioia hartu duen edo-nork badaki horrela izanen dela beti.

Izan ere, abioiez bidaiatzea deliberatu duena hasieratik oharitzen da gauzak ez doazela ongi, usai txarra dariola aferari. Biletea ikaragarri garestia izaten da, eta inork ezin ulertu zergatik. Aireportura iritsi eta han ez da abioiren arrastorik, zure mailetak zinta batek irensten ditu eta aio, bizpahiru kontrol iragan behar dituzu, tunel batek abioaren sabeleraino eramaten zaitu. Konpainiak aski ongi dakite instant horretan zure hankek dardar egiten dutela. Egoera errematatzeko, jarri orduko keinu aspertuko azafatek gogorarazten dizute erortzeko posibilitate ugari dagoela eta neurriak hartu behar direla. Bidaiari beteranoari (gerrikoa lotu nahi ez eta hegaldatzeko tenorean aharrasui egiten duenari) irribarre eginez txontxongilo mugimenduak errepikatzen dituzte. Ordea, une horretan gu gara txontxongiloak. Han barnean ez dago

hegaztirik eta bai txori izutuen begiratuko panpinik.

Egurraren ondotik igurtzia. Konpainiak, pagatu digunaz oroitu eta egunkaria, jatekoa, mantak eta argibideak eskaintzen dizkigu musutruk. Laster irribarreak itzultzen dira bisaietara, marmarra hedatzen da, batek edo bestek goitiago igo nahi du (whiskya)...Laburra izaten da poza. Gurrutxagaren aurpegia duen ahots batek zurrunbiloak direla eta gerrikoak lotzeko iragartzen digu. Hamabi mila metro lurreraino. Temperatura, hotz samarra. Horrela-ko hegaldi bat pleitatu dute hemendik hurbil. Hegaldi zenbakia: EUS-25-0. Batzuk behin probatu nahiko dute. *Bon voyage*, entzunen dute atea hertsitakoan. Beste batzuk etxetik entzunen dituzte konpainiak berak kontzentratutako ehiztarien lehen tiroak. Hegaldi hau ere ez da luzea izanen. Putreak inguratuko dira gero. Hauek bai hegaztiak. «Ni bai, zuek ez», esaten du putreak golkorako, urruntzen den bitartean.

Sakana

Sakanako euskara aztertzeko dirulaguntza

SAKANAKO MANKOMUNITATEAK eta Bierrik Elkarrekin 1998-1999 urteetarako Sakanako euskara aztertu eta sustatzeko beka deialdia egin dute. Deialdiaren xedea ikerketa baterako dirulaguntza ematea da, Sakanako euskara eta Sakanan euskara bultzatzeko asmoz. Honako honetan, hain zuzen ere, Sakanako euskararen ahozko tradizioari buruzko ikerlan bat egitea eta berau herritarren artean zabaltzeko urratsak egitea da laguntzaren helburua. Dirulaguntza milioi bat pezetakoa da (40.000 libera).

Sakanako ahozko tradizioa: bertsoak, kantak, ipuinak, hitz-jokoak, esera zaharrak eta abar dira ikerketaren edukiak. Bestalde, bilketa eta sailkapen lan horretaz gain, esleipen-hartzaileak lana Sakanako ikastetxeetan, kultur elkarreetan eta, oro har, gizarte-an zabaltzeko proposamena egin beharko du.

Deialdiaren oinarriak Sakanako Mankomunitatean daude interesatuen eskura. Proiektuak aurkezteko azken eguna azaroaren 18a baino lehen izanen da. Hautagaiei dagokienez, erdi edo goi mailako unibertsitate tituludunak izatea, eta EGA edo Baliokideren bat izatea eskatu da. Epaimahaiak baldintzok betetzen ez dituzten proiektuak ere onar ditzake. Dena dela, Sakanan erroldaturiko pertsonak izanen dute lehentasuna, aukeraketan bi lagunek puntuazio bera lortuz gero.

→ Amaia Mundiñano

Lizarra •


Abian da II. Aste Internazionalista

Hitzaldiak, diaporamak, antzerkia eta erakusketak

Lizarrako Gazte Asanbladak eta 500 Urte Komiteak ekitaldi anitz prestatu dituzte datorren aste osoan izango den Aste Internazionalista egin ahal izateko.

MUNDUA ALDATU AHAL IZATEKO, aurrenekoz, ezagutu egin behar da. Horrelaxe esan zuen jakintsu batek duela urte mordera, eta lelo horren edukia jakinarazteko xedearekin antolatu da, berriro ere, Aste Internazionalista. Lizarrako Gazte Asanblada eta 500 Urte Komitea Elkarrekin bertze herrialdeetan bizi diren egoerak ezagutzeko aukera ematen dute astearen bidez. Aurtengo ekitaldian bor-bor dagoen emigrazioaren gai sakondu nahi izan dute. Horretarako arlo horretan adituak diren hainbat hizlari laguntza izanen dute. Ekitaldiek asteazkenean hasi eta larunbatera arte iraunen dute.

Hilaren 28an, GKEen lana aztertuko den mintzaldia egonen da arratsaldeko 20:30etatik aitzina, Lizarrako Gaztetxean. Bertan, Txema Mauleon soziologoak taldeon jardura ikertuko du. Ostegunean, berriz, Afrikatik datozen emigraanteen egoera gertutik ezagutu duten bi hizlari izanen dira. Udan SOS Arrazakeria



Arrazismoa izanen da mintzagai jardunaldietan. • ARTXIBOKOA

eta Komite Internazionalistak elkarrekin bi kide Gibraltarko itsasartean egon dira, eta bertan txalupen inguruan dauden arazoak bizi dituzte.

Ortziralean, berriz, emigrazioaren mundua ardatz duen *Las cartas de Alou* filma ikusi ahal izanen da. Bertan, emigrante batek Euskal Herrira iristean topatuko dituen arazoak azalera-tuko dira.

Lizarrako II. Aste Internazionalista datorren larunbatean egingen den ekitaldiarekin bukatuko da. Elkartasuna karrikara ateratzeko leloarekin erakusketak zabala eta

mamitsua izanen da ikusgai. Halaber, egun horretan bertan herrialde ezberdinen jakiak eta lanabesak jarriko dira salmentan.

Gazteen Eguna

Bertetik, bihar Gazteen Eguna ospatuko da Santiago enparantzan. Lizarrako Gazte Asanbladak antolatua, gazteek egun ona pasatuko dute. Arratsaldeko 18:30etan txokolata banatuko da, eta jarraian Oteitzako antzerki taldeak bere azken lana, *Bederatzi ero*, taularatuko du.

→ Kristina Berasain

herri aldizkariak

Edurne Elizondo

Flandriako Euskal Jaialdia

Ttipi-ttapa hamabostekariak, Flandriatik Ikastolentzat elkarteko kide Ludo Docxi egin dio elkarriketa azken zenbakian, azaroaren 7 eta 8an Flandriako Antwerpen 23. urtez ospatuko dute Baskenavord edo Euskal Jaialdiaren berri zabaltzeko. «Baskenavord elkartasunaren sinboloa da. Flandriako jendea kontzientzia-teea ere nahi dugu, eta dirua biltzeko asmoa ere badugu. Iaz Mauleko ikastolarentzat 60.000 libera bildu genuen (milioi eta erdi pezeta). Aurten, Senpereko Oxtikeneako euskalgunearen proiektuari laguntza eman nahi dugu», azaldu du Docxek *Ttipi-ttapa*-n.

Azaroaren 7 eta 8an ekitaldi ugari izanen dira Euskal Jaialdiaren baitan: «Aurten Berako trikitilariak izanen dira, Irastorza anai-arrebak. Senpereko Pilota Egunean aditu nituen eta Flandriara joanen ziren galde egin. Gogotik atxiki zuten gonbita. Iparraldeko abeslariak ere izanen ditugu: Peio Ospital, Mixel Ducau eta Caroline Philips, Pantxika eta Maialen, Azkaingo Pantxika Solorzano... Omenaldi xume bat ere egingen diogu Jean Louis Maitiari».

Ttipi-ttapa-n, Euskal Herriaren eta Flandriaren arteko harremana nola sortu zen azaltzen du Ludo Docxek: «1936. urtean Gernikako

umeak ailegatu ziren Flandriarat itsasontzi erraldoi batean, hiru bat mila ume. Hainbat han gelditu ziren, gurasoak gerran hil baitziren. Bertze errefuxiatu multzo bat Francoren azken hamarkadan ailegatu zen. Nik neuk orain 25 urte ezagutu nituen euskaldunak, Flandriako Aberri Eguna gonbidatu baikenituen Iparralde eta Hegoaldeko euskaldunak. Geroztik 28 egonaldi egin nituen Euskal Herrian eta orain hamar urte erretiratzeko aukera eman zidatenean, Euskal Herrira etorri nintzen. Euskara ikasten hasi nintzen Lazkaoko Maizpiden».



Xabier Larraburu

Fernandez eta Larraburu

Teoria txiki eta beldurgarri bat da karkizut laguna. Ni bezala prentsan agertzen diren artikuluen irakurlea zarela imaginatzen zaitut noski. Beno ba, *artikulisten-irakurleok* tontotuak gaudela pentsatzen hasia naiz. Ohartu zaitetz, pentsatu pixka bat, nola irensten ditugun artikulua...ez da normala. (Konturatu zaitetz, bidenabar, zutabe galdu eta bitxi hau ere irakurtzen ari zarela, bueno, ez dakit, zurea larria da!). Hau obsesiboa da! Zeharo, guztiz kutsatuta eta eri gaude adiskidea! Hainbeste zaboreria irakurrita pentsamendu memelo eta tontoetan ematen ditugu orduak, guztiz nahastuak. Niri gertatutako adibide argi ta garbi bat azalduko dizut, tamalez literatura ez dena guztiz erreala baizik. Pasa den asteetan Fernandez abizena gora ta behera ibili da Espainiako prentsan argitaratzen dituzten artikuluetan. Ibarretzek, nonbait, Fernandez batekin elkarlanean aurrera egiteko inongo problemarik ez zuela adierazi zuen; hau da, eksklusioa ez dela inondik inora bere helburua eta abar eta abar. Segituan Espainiako intelektualek sutan jarri ziren: *abizenak kontutan hartzen ditul arrazismoa da hori!*

Memelokeriak. Ni, noski, aluke-riak baziren ere, hausnarketa sakonetan murgildu nintzen: abizenak direla-eta inoiz baztertu al dut nik inor? ze harremana izan dut nik gazteladun abizenekin? inolako garrantzia eman al diot nik horri? eta horrela. Ideia orokorretan murgildu nintzen, hau eta beste, mila burutapen. Seguro nago bi orduz edo, amorratua, gogoan izan nituela beraien hitzak. Deustarako. Bapatean ohartu nintzen Fernandez abizena oso ezaguna dela niretzat. Noski: nire anai nagusiek abizen hori daukate-eta! Nik Uharte Larraburu dudana bezela haiek Fernandez Larraburu dute. Arrazoa *anaioordeak* direla da. Santa Sekulan erabili ez dugun hitza bidebatez esanda (Hitzegian begiratu behar izan dut euskarazko hitza aurkitzeko). Pentsa, zer ostias esan behar didate neri Fernandez-ekiko harremanetaz?. Ohartu zaitetz zentzuberaino kutsatu gaituzten eta nola merezi ez duten gehiegizko atentzioa eskeintzen diegun. Penagarria. Puntu.

Burnizko sugearen joandako garaialak

'Nafarroa eta tren', herrialdean trenaren historia bildu duen liburua plazaratu berri du Juan Jose Martinenak

'Nafarroa eta tren' herrialdeko trenaren historia bildu duen liburua kaleratu berri du Juan Jose Martinena, Nafarroako Artxibategi Orokorreko zuzendariak. Burnizko sugearen historia 1857an hasten da lurraldeotan, eta garai onak ezagutu bazituen ere, egun trenbide zabaleko bideak bakarrik geratzen dira. Trenbide meharreko seiak desagertu dira.

LURRINEZKO TRENAREN FUTAKO ETA TXISTU barnerakotien doinuak historiara iragan dira jadanik. 70ko hamarkara arte Nafarroako trenbide sarean ohikoak ziren burnizko tren-makinak ez dira gehiago bistatuko. Dena dela, tren haiek historia egin dute eta horien iragana jaso nahi izan du Juan Jose Martinena. Nafarroako Artxibategi Orokorreko zuzendariak *Nafarroa eta tren* liburua. 1857an Isabel II Espainiako erreginak emandako Erret Agindu batek onartu zuen Zaragoza eta Iruñea lotuko zituen trenbidearen proiektua. Lanak handik gutxira hasi ziren. Iruñetik Frantziara iragaitako Iruñeko bidetik edo Adudetatik iragaiteko erabakia hartzen zen bitartean lanak aurrera zihozten eta 1860ko irailaren 15ean inauguratu zen ofizialki linea. Ekitaldia Murillo el Cuenden izan zen. Zaragozatik Iruñera zihozan trenbidea haraino bakarrik iritsi baitzen orduan. Hura hasiera besterik ez zen izan, ondoren etorriko baitziren egungo sarea osatzen duten beste lineak eta trenbide meharreko trenak. Argitalpenak, egileak dioen moduan, trenbide zabaleko trenaren (metro eta erdiko tartea errailen artean) zein meharreko (metro bateko tartea) ibilerak eta bideak jaso ditu. Batetik, trenbide zabaleko trenak, Norteko Trenbide Konpainia, eta bestetik, Nafarroan izan ziren trenbide meharreko sei tren-lineak: Tarazonica, Cortes-Borja, Irati, Plazaola, Bidasoa eta Lizarra-Gasteiz edo Vasco-Navarro deitua, dio egileak.

Sare nagusia, Norteko Trenbide Konpainiarena Zaragoza-Iruñea bidea egiten zuena Iruñetik Zaragozara iritsi zen eta Iruñetik gora Irurtzunera 1864ean. Handik Altsasura joaten zen berriro ere, Madril Iruñeko Norteko Konpainiarekin bat egiteko. Nafarroak Bide zabalekoa Iparraldeko



Nafarroan zerbitzua eman zuen lehen diesel makineta bat, 1970 urte inguruko irudian.

● JAVIER CEJUELA


konpainiak ustiatzen zituen hiru lineetara murriztu da. Castejon-Bilbo Logroñotik barna egiten zen bidea ere esanguratsua izan zen Errioxako ardo merkantziendako aterabidea zelako. 1857an eraikitzen hasia, Erriberako herrientzako onuragarria ez ezik, batez ere Castejon herriarentzako izan zen onuragarria Tuteran beharrez hant egin zuten zelako sareko beste trenekin lotunea.

Bide meharreko trenak

1885tik 1923ra Nafarroak bide meharreko trenbideen goreneko garai ezagutu zuen, denbora tarte horretan aurrean aipatutako sei tren lineak eraiki baitziren. Horietatik martxan jarri zen lehena Tuterara Tarazona bidea egiten zuen Tarazonica izan zen. Atzetik etorri ziren: Cortes-Borja (1888an); Iratititik zetorren Iruñea-Zangoza bidea (1911); Iruñea Donostia ibilbidea egiten zuen Plazaola trena (1914); Elizondo-Irun bidean zetorren Bidasoa (1916) eta Lizarra-Gasteiz artekoa iragaiten zuena (1927an).

Bata bestearen atzetik abiatu baziren ere, loraldiak ez zuen gehiegi iraun eta 1955tik 1970rako tartean denak desagertu egin ziren. «Sare nagusiak baztertzeko zituen bigarren mailako sareak eraikiz baztertuak gelditzen ziren eskualdeak hartzeko helburuarekin Nafarroan errailaren gorakada ikaragarria ezagutu zen 1885tik 1923ra. Baina 1955 eta 1970 prozesu beraren joan-etorri bat izan zen, tren guztiak itxi egin zituztelako», azpimarratu du Martinenak.

Neurrian, helburuetan eta ibilbidean ezberdinak izan arren, egin zirenean denak izateko arrazoiak izan zuten. Tuterara Tarazona bidea egiten zuena baliagarria izan zen Nafarroako hegoaldean baztertuak geratu ziren herri askok lotura bat izateko Na-



N° 166.a. 1863an, Iruñetik Iratititik 1900 urtean. ● JAVIER CEJUELA

farroa Garaiko Iparraldeko linearekin. Cortes eta Borja artekoan gauza bera gertatu zen. Nafarroan hasten bazen ere, Aragoiko Borja eta inguruetatik herrietan aterabidea emateko erabili ahal izan zuten eta Eusko Trenbidearekin lotu ahal izan zuten. Irun eta Elizondo batzen dituen Bidasoa trenari atzekoa gertatzen zitzaion. Turismoa dela eta Baztango eta Bidasoaldeko inguruneak jendea erakar-

bogan zegoelako sortu bazen ere, ez zituen bakarrik Iruñea eta Gipuzkuako hiriburuetako biztanleak eta merkantziak garraiatu. Aldi berean, bi hirion arteko hainbat herritako jendeak erabili ahal izan zuten eta Eusko Trenbidearekin lotu ahal izan zuten. Irun eta Elizondo batzen dituen Bidasoa trenari atzekoa gertatzen zitzaion. Turismoa dela eta Baztango eta Bidasoaldeko inguruneak jendea erakar-

tzen zuen. Gainera, trenbideak Iparraldeko bidearekin lotunea errazteaz gain, Hegoaldeko itsasoko herriekin batu zitezkeen. Bestalde, minerala eta abere garraioa ere egiten zuten bi azkenok. Azkenik, Lizarra-Gasteiz bidea egiten zuen Vasco-Navarra proiektua oso zaharra zen arren, Primo de Riveraren diktadurara arte ez zen egin ahal izan. Lizarraldean geratu ziren herriak Gasteizekin lotzea zuen helburua.

«Ongi pentsatutako trenbide azpiegitura sortu zen, orduko errepideena osatu zuena, eta oraindik autoa hasi besterik ez zenean egin. Gero errepidea eta trenbidearen arteko desafioan errepideak hartu zuen aurrea eta autok izan ziren nagusi, gaur egun bezala», gaineratu du Martinenak. Baina trenbide sareak ez ezik, atzean geratu dira ere garai bateko burnizko suge itxura zuten makina haiek. Baporezko azken makinak 1975ean utzi zuten funtzionatzeaz, eta orduko hasiak ziren dieselen bidez ibiltzen zirenak jartzen. Gutxi iraun zuten, eta 1977an inauguratu zen elektrifikazioa.

Aldudetako proiektuaren porrota

Liburuak ere Nafarroa Garaia eta Nafarroa Behera trenbidez lotzeko aukera aipatzen du. Dena den asmoa ez zen gauzatu. Garai hartan indar gehiago zuten interes militar eta estrategikoak eta Pirinioetan tunel bat zabaltzea aipatzea bera ez zen onartu. Nafarroako diputatuek 1861an eskatu arren, hemengo merkatal produktuak han aterabide bat izateko asmoz, batez ere ez zen gauzatu. Iruñea-Zaragoza bidea egin zuen konpainiak proiektua egin zuen eta bertako arduradun zen Jose de Salamanca Foru Komunitatearekin idazki bat sinatu arren, Espainiako Gortean egin eztabaida atzera bota zuten. 1859 eta 1919 artean Aldudeko bidearen alde izkribu asko sinatu ziren arren, paper hutsean geratu ziren. Frantziak Espainia armaz inbudituko zuenaren beidurra naguzitu zen, beraz.

Etorbizuna politikoen esku

Egun Nafarroa Garaiko trenbidea RENFEren (Espainiako Trenbide Konpainia Publikoa) esku dago eta 198,800 kilometroko hedadura hartzen du. Ez dira kilometro gehiegi Nafarroa nahiko luzea dela aintzat hartzen bada. Dena dela, kilometro guztiok hiru lineatan zatitzen dira: Madrid-Irun linea 17,900 kilometroekin; Altsasu-Zaragozako 179,730 kilometrokoa eta Castejon-Bilbo 12,200 kilometrokoa (2,200 eta 10 kilometrotako zatien banatuak). Martinenak dioenez, eta bitxikeria badirudi ere 1860an herrialdean ezarritako sarea eta egun dagoena parekoak dira. Gaintzeko trenbideak bestalde desagertu egin dira. Liburuak trenak Nafarroan orain gutxi arte izan diren ibilbidea jasotzen du eta ez du deus aipatzen etorkizunaz. Egileak nabaritu duen moduan, garai batean futakoa Nafarroako hainbat herritar iristen zen makinaren etorkizuna politikari eta injenieruen esku dago. Trenbidearen oinarria bera izaten jarraitzen du baina liburuan kontatzen dena historia da. Etorbizuna, abiadura handiko trenak... da eta jadanik ez du deus ikustekorik garai hartako tren erromantikoa eta tren-makina dotoreak, atzo arte Nafarroako lurralde menditsu eta malkartsu zein lauk zeharkatzen zituena. «Oraina eta etorkizuna ingenieru eta politikoen da beraiek hartu behar dituztelako erabakiak. Abiadura handiko trenak eta bestelako tren zerbitzuak etorkizuna dira. Hemen izan zen trenaren testigantza bildu nahi izan dut. Gehiago izanen ez den trenarena eta orain nostalgikoek gelditzen den baporezko baten bat bilatzea joan behar dute. Azpeitian dagoen Trenaren Euskal Museoan aurkitzen diren baporezkoak, alegia», bukatu du.

→ Irene Arrizurieta

Emeterio Garcia

Castejongo Trenbidearen Adiskideen Elkarteko presidentea

«Oroitzapena geratzen zaizkigu soilik»

Emeterio Garcia tren langile-ohia da. 44 urtez Castejongo tren geltokian beharrez aritua egun Trenbidearen Adiskideen Elkarteko presidentea da. Orduak emanen lituzke trenaren inguruko istorioak kontatzen. Batzuk hemen gogoratu ditu.

Castejon garrantziatsua izan zen Nafarroako trenbide sarean lau komunikazio lotune zituelako.

■ Herrian trenbideari eskainitako museoaren paratu zuten orain urte bat. Beste asmorik baduzue?

Lurinezko tren bat jarri nahi dugu martxan. Kaledonia markakoa da eta Zaragozako Utego herrian konpontzen egon da. Arazoak izan ditugu eta seguruenik Gironan bukatuko dugu moldaketa. Eginak daude garaiko bi bagoiekin lotu eta bidai kulturalak egin nahi genituzke ondoko herrietara. Era berean, «plantanito» trenarekin, kolore hori-gatik horrela deitua, besterik egin nahi dugu. Hogeita bost urte dituen tren erredua da. Espainiako Trenbideen Fundazioa eman digu eta moldatu nahi dugu 217 eserleku dituelako. Diesel makina batek eramanez luke erredudenez

mekanika moldatzea garestia delako. Bidaiek egiteko bako dugu.

Castejon garrantziatsua izan zen Nafarroako trenbide sarean lau komunikazio lotune zituelako. Euskal Herriko beste herrialdeekin eta Espainiarekin komunikatzeko: Bilbokoa Logroñotik; Irungoa, Iruñea-Altsasatik; Bartzelonakoa Zaragozatik eta Madrilakoa Soriatik. Noiz jarri zen martxan tren geltokia?

Martxan, martxan 1864ean jarri zen. Bi urte lehenago Castejon eremu bat zen eta Nafarroako agintariek trenbidea sortzea erabaki zuten. Tuteran salatu ziren baina lurra kobratzen zitzaizenez Castejoneko etorri ziren doan ziztaielako. Ondoko herrietatik jende ugari hurbildu eta lanera. 1862an hasi ziren lanean eta 1867an bukatu zuten erabat geltokia. Trenbidearen ondotik sortu zen herria.

Castejon trenbidearengatik eta trenbidearentzako sortu zuten. Garai hartan herri osoak trenaren inguruan egiten behar. Gogoa dut zortzi urte nituenean herrian ez zela apenas komertziorik. 1938-40 bitartean Castejonek elago izan ez dituen gauzak zeuden diru mugimendua lana ikaragarria zelako: zinema eta antzerki aretoa gertu eta hiru prostituzio etxe.

Lau komunikazio lotune ditu Castejongo geltokiak. Nafarroan garrantziatsua izan da?

Bai. Castejongo geltokiak mugimendu eta lan asko izan zituen 1957. urtean 700 langile inguru aritzen ginen lanean

geltokiko zerbitzuetan. Trenbidea ez dira bakarrik, trenak eta bertako langileak, badira tailerrak, zerbitzu elektrikoak e.a. Egun, gehienez 40 dira. Gaur egungo mugimendua ez da ordukoa. Gaur egun bidaiarien hiru tren iragan daitezke gelditu gabe. Hori duela 20 urte pentsaezina zen.

■ Beraz, gauzak asko aldatu dira?

Orduko garaiak onak izan ziren eta bizimodua ere ezberdina zen. Dirua barra-barra zebilen baina egun oroitzapenak besterik ez dira. Oroitzapenak geratzen zaizkigu soilik.

■ Bigarren mailan geratu da Nafarroa trenbidea?

Erabat. Orain errepidea bultzatzen da eta trenbidea baztertzeko ari da. Ahalduari ematen ari zaizkio erreztasunak.



→ Irene Arrizurieta

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Goienetxe doktorea, Donibane-Lohitzuneko auzapez euskalzalea

Pasa den mende akaberan Donibane-Lohitzuneko auzapeza zen Goienetxe doktorea euskal kulturaren eragile eta bultzatzaile garrantziko izan genuen; Abbadie zein Vinsonen lagun mina, euskaldun xehearengandik hurbilago egoten ere bazekien jakin; hori dela eta, agian, bere lanak nahikoa oharkabean igaro zaizkigu



AZKEN URTHE HAUTAN, GURE herrietan eta partikularzki Frantzia guzian, arranguratu dire lurrek egunetik egunerat gutiago emaiten dutela. Dela sasoinaz, dela beso eskasiaz, dela errekoltez gaizki baliatzeaz guziak arrazoinarekin khexu gare; denbora berean karga eta zerga mota guziak hemendatuz dohazi; manera guziez lehertuak gagozi. Gizon izpiritu handitako eta entseiatu batzuek bilhatu dute nola khasu triste eta hertsu huntan posible liteken laborarier laguntza egitea. Hainitz gisetan bilhatua izan da sokhorria: batzuek nahi lituzkete dretchoak kargatu estranyeriatik heldu diren bihi, arno eta azienden gainean; bertzek galdetzen dute laborantzako lurren gaineko zergak ttipitzea. Horiak guziak onak dire eta nahi gintuzke ik-husi finki entseiatzen! Bainan dire bertzek egin beharrikakoa, eta mundu huntan, nahi denean erreusitu, bakhotzak hoberenik du bere gainean kondatzea. Hola pentsatu dute abilenek eta bilhatu dute heian ez liteken bada posible gure lurreri emanaraztea ematen duten baino gehiago bortsatu gabe eta geroko bidegaberik gabe».

Honela mintzo zitzaiguna Donibane Lohitzuneko auzapeza zen Goienetxe doktorea genuen, non eta Baionako Lasserrenean inprimaturiko *Laborarier zonbeit kontseilu berechi ongarri erremedio berriz izenburuko kaier txipian*. Agerurtea ez eramanagatik ere, gauza ziurra da joan zen mende ondarreran zein mende honen hastapen urtetan agerikoa zatekeela. Lan horretan, eta aski argi geratu den bezala, Lapurdiko nekazari hainbat aholku luzatu zizkien ongarri berrien erabilerari buruzkoak. Antzeko lana ere bazuen egina Jean

Baptiste Althabe apez mauletarrak, 1904.ean ateratako *Honkailu berrien enthelegia Cibe-rouko laborarier* idazkian. Goienetxerenean, ez horren zehazki, ausaz, azota edo nitrogeno, azido fosforiko eta potasiodun onkailuez jardun zitzaigun labur 16 orrialdetan barrena: «Horiek geronek fornitzen ditugu hainitz edo guti ongarria emaiten dugunean lurrari eta erran dezakeguke ongarritan hoberen dela printzipio berechi horiek kantitaterik handiengan dituen. Behar ziren beraz kausitu zoin onkhailutan printzipio berechi horiek izan zitezken kantitaterik handiengan. Nola ere merkeenik eman zitezken lurreri. Kausituak izan dire eta erranen zaituztet zoin diren gure lurretako merkerenak eta denbora berean hoberenak, dela bakharrak, dela elgarrekin, nahasirik edo mesklaturik emaiteko. Hiru erremedio printzipal hek dire deitzen direnak: *scories superphosphate*, eskuaraz zepa, *nitrate de soude*, *ESKUARAZ CHILIKO ZALPETRA*, eta *plâtre ou sulfate de chaux*, eskuaraz igeltsua». Jarraian, lurra ongi prestatzeko gomendioak behin emanik, zer onkailu eta zein neurritan erabili behar diren zehaztu zingun, baldin eta gari, arto, patata, arbiki, belar ala mahatsondorako bada.

Bukatzeo, euskal nekazariak sindikatzeo duten beharraz iharduki zitzaigun, kalitatezko onkailuak erosi ahal izateko zein sort litezkeen bestelako arazoei errazkiago aurre egin ahal izateko: «Segurantz osoko marchandiza izaiteko behar duzue elgar aditu herri edo kantoinamendu bakhotchean. Doniane-Ziburuko kantoina-

menduan aspaldi egin dugun bezala, bilkuia bat, edo confrarioa, *syndicat agricole* deitzen dena egin; den gauzarik errechena da. Kontseilatzen zaituztet beraz elgar aditzea kantoinamendu bakhotchetan bilkuia baten formatzeko. Denborak emanen zaituzte irakusterrat zombat abantail izan dezazuekin laborantzako, hola elgarrekin konpainia berean izaitetik».

Nahiz arront oharkabean igaro, Goienetxe auzapeza izan zen, Abbadierekin batera, Donibane-Lohitzuneko euskaljaien bultzatzaile nagusia 1892.ez geroz, bestalde ere, 25 urtetan iraunaraziko zen ekitaldia. Lohitzuneko honetan izan zen «Zapiak bat» leloa estrainekez ezagutzera eman zen gunea, ilustratuen «Hirurak bat» zein geroagoko «Laurak bat» murriztatzaile bezain espainiarzaleak zinez gainditu zituena. Vinsonen laguna ere bazen Goienetxe alkatea; 1899.eko Parisko erakusketa unibertsalean burutu eta Vinsonen berak zuzendu Euzko Ikasketen Kongresuaren antolatzaileetako izan zen. Hantxe hizkuntza, arraza, jantzia, heraldika, arkeologia, musika edota artea ikertu zen. *La tradition basque* izenburupeko lan ezagunean jasoko zena.

Goienetxe beste lan batzuren egilea ere izan zen. Vinsonen bibliografian *Gernikako arbola, eskualdun kantaria* izenburuko datorkigu; 1892.ean agerturikoa, 36 kantako bilduma dugu, 70 orrialdeko ale txikitxoan, azalean Gernikako arbolaren marrazkia harroki erakusten duena. Bigarren edizioa 1894.ean ateratu zen, orrialde kopurua zein kantuen ere nabarmen haundituta, 36 orrialdekin eta 20 kantekin hurrenez hurren, hain zuzen ere.



etorri ahalean

Patziku Perurena



Iturengo pilotaplazan

BAI, 1681EKO BURUI-laren 25ean gaudela. Ortzeguna da, eta, halare, sekulako jendeketak bildu dira inguruko herrietatik Ittuina. Aurreko egunetan mundu guziaren ahotan ibili baita pilota partida ikaragarri baten kontua. Lau gartzaindar beste lau aranaztarren aurka. Kondizio zorrotz batekin hasi dute zortzi pilotariek elkarren arteko peleia: pilotarik ez bustitzea, sakatzekoan axaletik pittin bat ez bada, zeren:

«por parte de los de Garçain se consideró por experiencia que en otras ocasiones se a tenido con diferentes jugadores de Aranaz que por permitirles el mojar las pelotas a su voluntad las ponían pesadas y fuertes que a poco que se juegue con ellas lastiman las manos y no ai nadie que se atreba a restar la pelota en que los de Aranaz hacen gran benta-ja por tener havito a jugar con pelotas mojadas mas pesadas y fuertes».

Arauok ezarri dituztenak, Aranazko Pello Joxepe Zabaleta apezka, Narbarteko Martin Ruiz erretore jauna eta Jerolimo Elizmendi Gartzaingoa izan dira, eta partidua aurrera doa, elkarren arteko peleia bizian. Zazpi eta hiru, Gartzain irabazten. Lehendik jokatuak aski ez, hasi dira azken sos pizarrak dantzan, eskuz esku.

Baina, laster hartu du buelta partidak. Aranaztarrek 13 gartzaindarrek 9. Jendea ziztuka eta oihuka: betiko tranpa hasi dutela aranaztarrek! Plaza ondoko etxean, Iñarrean, badituztela pilota batzuk uretan gordeak, eta gainera pastorratz haundi batekin zulatua, *«para que recibiesen más agua con que las pusieron tan fuertes y pesadas que los acobardaron y rindieron a los de Garçain».*

Sekulako iskanbilak eta haserreak sortu dira jende artean, eta goizeko hamaika terdietan hasia zen partida bertan utzirik bazkaltzera doa jendea marmarka. Bi ordu beranduago, aranaztarrek Iturengo plazara

itzuli dira *«acompañados de mas de diez y seis escopeteros de su patria y con otros muchos de las cinco villas, y se pusieron en ilera juntos pidiendo se les entregase todo el dinero que se habia atra-besado»*, bertzenaz, kendu eginen ziela, bitarteko heriotzak heriotz. Aurka hasi gabe, etxera aldegin dute Gartzaingoek.

Aldez aurre jokatuak diruak, ehun errial, Zubietako Don Tomas Grajirena apezka gordeak zituen, eta beste ehun errialak, Don Martin Ruiz, Narbarteko erretoreak. Ez zizkien eman nahi, baina, aranaztarrek indarrez kendu, eta urriaren seirako Iruñean zuten denuntzia. Han azaldu ziren trapu zaharrak:

Narbaterko erretoreak, 60 errial zituen Gartzaingoen alde jokatuak. Iturengo Iñarreko Katalinak, aitortu egin zuen, Juan Malot deituriko lesakar batek, urontzia ixilka eskatu eta pilotak uretan eduki zituela, aranaztarrentzako prest. Pilotagile narbartearrak, erdaraz jatik ez zekienak, partida hastekoan aztertu zituen pilotak, eta Aranazkoenak askoz pisuagoak zirela ikusi, baina deus ezin esan, bertzenaz...

Harritu egin nau aranaztarren martingalak. Sekulan ez nuen pentsatuko pilota hartaraino ubasitua joka zitekenik! Gu mutikotan, bustitzeo eta hondatzeko bildurrez aritzen baiginen Goizuetan, batez ere, han edo hemen, beti istilen bat izaten zuen Iserriko pilotaplaza xahar hartan. Zenbat aldiz, elkarri maldizioka, gerok artilez eta espatrapuz egindako pilota txar haiek istilen batean sartzeagatik.

Egia da, halare, inbidiz edukitzen gintuzten larruzko pilota dotore haiei, sakatzekoan ixtu pixka bat emateko ohitura izaten zutela gu baino larriagoko tranposo batzuk, batez ere, Lubineko pilotaplaza estalian, igandero mezondoan zapatak kenduta hankutsik hamaiketa-koak jokatzeko ziztuzten mutil baseritar zimel haiek.

Ziria

• Motxorrosolo •

Kokoriko

MAITAGARRI, IRRINTZI, MALLOAK, ORDU TXIKIETAKO JOSTALEKU IZANDAKOAK horren gazteak ez direnentzat. Zangozako Geminisen, Tuterakoa izan beharrean Probintziakoa den *Ollarrak* kokoriko. Garai batean, ekaitzaren iragarpenera bere oldarra. UPN-PNV balizko Nafarroa Garaiko Gobernu lekuko. Oraingo honetan, gizartearen heldutasuna aipatzen da bere agintea gutxietsi arren. Sekulakoak eta bi esan ondoren bertsolariaren eskutik jaso du saria. Bertsolariaren heldutasuna nonbait.

Jose txo Goia-Arrib e

Musikagilea

«'Eunate' oso bat-batekoa izan da»

Jose txo Goia-Arrib e musikagileak *Musika para un camino* kontzertu bira hasi berri du.

Emanaldiek *Eunate* bere azken lana aurkezteko aitzakia izanen dira. Goia-Arrib eren irudiko bere lana aproposa da elizetan entzuteko, haietan izaten den isiltasunean egiten duen musikak nahi duen gorputza hartzen duelako, isiltasunaren itxura.

LUZE ARITU DA EGITEN DUENAZ, azaltzeko duena esateko hitz nahikorik ez balu bezala. Batik bat, elkarrizketa bukatutakoan, berak esan bezala, kazetariak zer publikatuko duen beldur delako. Labetik atera berria duen lan berriarekin oso pozik dagoela esan du, eta euskal kulturaren euskaldunen alde mediterranoarra ere azaldu behar dela dio.

■ **Bide baterako musika emanaldi bira hasi berri duzu. Bertan *Eunate* zure azken diskoko lanak aurkezten dira. Zure musika egokia da Donejakue Biderako?**

Donejakue Bidean aurkitzen diren zenbait eliza aitzakia gisa hartu ditut *Musika para un camino* bira egiteko. Bira horretan egiten dudana musika nik konposatutakoa da. Isiltasuna eta elizetan dugun oihartzuna harturik *Eunate* lana aurkezteko toki aproposa dira elizok, han hartzen duen gorputz musikala ederra delako. *Eunate* dis-

.....
 «Eliz batetan sartzen garelarik isilik egoten badakigu eta isilik egoten jakite hori harturik, baliatzen naiz isilune asko dituen konposatzen dudana musika interpretatzeko».

.....
 koa sortu zen Muruzabal herritik gertu dagoen *Eunate* elizan. Peio Ramirez biolontxelo jolearekin batera zenbaitetan hara joan, eta jotzen eta konposatzen hasi ginen. *Eunate* bertan zegoen oihartzunak eta tokiak berak eragin ninduen halako musika egitera. Nire musikak ez du Donejakueko Bidearekin zerikusirik. Musika akonfesionala da, eta ez dut Donejakue gogoan, baizik eta bide historiko hori *leitmotiv* hartuz, bertan diren zenbait eliza hartu eta kontzertu bira bat antolatu dut. Eta zer erranik ez, elizetan dagoen hutsune edo, hobeki erranda,

isiltasuna, primerakoa da musikarako.

■ **Beraz, zuk nahi duzuna frogatzeko aukera ematen dizute elizek?**

Bai, jadanik frogatua da, baina elizetan isiltasunaren kultura gertatzen da. Eliza batean sartzen garelarik isilik egoten badakigu eta isilik egoten jakite hori harturik, baliatzen naiz konposatzen dudana musika interpretatzeko, isilune asko dituen.


■ **Saxofoia eta biolontxelo tartekatuz, nahi zenuen mestizajea lortu duzu?**

Ez dut mestizaje hitza maite. Hemen guztiok mestizoak gara. Hori esperientzia empirikoa zen.

Ikaragarri gustatzen zait biolontxelo eta zer erranik ez saxofoia. Behin Iruñean poesia errezitaldi baterako zerbait konposatzeko erran zidaten. Hura aitzakia ederra izan zen niretako txelo eta saxofoi batek zer eman zezaketen ikusteko. Deitu nuen Peio Ramirez Intxausti, eta konposatutakoa anitz gustatu zitzaigun. Oso bat-batekoa izan da.

■ **Nondik datorkizu inspirazioa?**

Uff. Horri erantzutea zaila da. Oteizaren *Quosque tandem* liburuan berak esaten du inspirazioa bat-batekotasunak sortzen duela, eta ni inspiratzen naizenean bat-batekotasunean ari naiz. Melodia idatzi eta arraina badagoela sumatzen dut. Kanabera bota eta zerbait atera daitekeela uste dut. Adibidez, ikaragarri gustatzen zaizkit pasodobleak, eta bidenabar erran dezadan Euskal Herrian



MIKEL SAIZ

soslaia

badagoela ozeanomania ikaragarria, eta zenbaitetan atzentzen dugu Euskal Herriaren bi laurdenak kultura mediterranoarraren pean gaudela. Gauzak horrela, ikaragarri gustatzen zait Mediterraneo aldera ura daramaten herrialdeen kultura, izakera, Iruñekoa esaterako. Hori dela eta, pasodoblea zertan den asko landu dut, eta bat ere egin dut; *Apirilak 14*, oso errepublikanoa sentitzen naizelako.

■ **Horrek esan nahi du gure kulturaren zati bat baztertu egiten dugula?**

Bai, hemen trikitixa besterik ez dugu. Kasu! gora trikitixa eta trikitixa jotzen duten guztiak, baina esparrua zabaldu behar da. Badira jotak, habanerak, murgak, pasodobleak, koplak eta abar, azken finean mediterranoar kutsukoak. Ikusarazi nahi zaigu trikitixa baino euskaldunagoa dela, eta hori Zangozan, Tafallan, Iruñean, Tuteran... Oso euskalduna eta irekia sentitzen naiz, baina mediterranoarrak ere bagara. Ez da erreibindikatzea, baizik eta historiarekin eta kulturarekin zintzoak izatea.

■ **Orain zertan ari zara?**

Hirugarren disko bat egin nahi nuke, *Auñamendi* lehenengoaren

Zainetan darama musika Jose txo Goia-Arrib e iruindarrak. Aita txistularia izanik, bera ere gaita eta txistua jotzen hasi zen trebatzen instrumentuetan. Musikaz gehiago jakiteko gogoarekin Iruñeko Pablo Sarasate Kontserbatorioan egin zituen lehen ikasketak, eta Donostiako Goi Mailako Kontserbatorio Nagusian Saxofoi karrera nagusia. Espainiako Kultura Ministerioak emandako beka bat aitzakia izan zuen Parisera joateko. Han emandako lau urteak, inprobisazio eskola batean ikasteko eta bertako musikarekin jotzeko balliatu zituen.

Orain arte *Auñamendi* eta *Eunate* izan dira kaleratu dituen lanak. «Estetikoki eta jendeak dioenez, bi obrak oso ezberdinak omen dira» dio musikariak. «Amankomunean dutena da ni egilea naizela eta musika tradizionalarekiko begi keinuak badituela», gehitu du.

Musika ogibide eta afizioa du baina guztia ez da nota eta doinu tartean ibiltzea. Askok gustatzen zaio mendira joatea eta naturan barrena ibiltzea. Berak azpimarratu duen moduan, bere musika instrumentala izateaz gain, «aire librean pentsatzea baita».

antzera, Parisko nire hiru musikarekin batera.

■ **Zer asmo dituzu etorkizuneko?**

Bira ahal den hobekien bukatzea eta Gipuzkoako herrietako bira. Otsailean Kafe Antzokian *Auñamendi* aurkeztuko dugu, eta gero nahi nuke Donejakueko kostako bidea urratu eta Gipuzkoan nire lana aurkeztu. Tolosan, Hernanin, Andoainen eta Lasarten barna bira bat egingen

dut, Parisko hiru musikarekin batera. Parisera joatea bidaiatzeko aukera bat da eta musikalki irekia izateko modua. Batik bat, nafar naizelarik nire lana Gipuzkoaratzea litzateke. Bartzelonan, Madrilan eta Parisen aritu naiz eta nahi nuke bideratu kostan barrena. Zenbait teknikarekin ari naiz mintzatzen eta ikusiko dut zertan geldituko den.

→ Irene Arrizurieta

BEKARIO!

patxi@earthling.net



Nafar Kronika

Fermin Erbiti

Asteleheneko argazkia

Nafarroa Oinez ekitaldi hain jendetsua ez balitz, biharramuneko argazki ofizialean agertu ohi diren alderdi politikoetako ordezkarien erdiak ez lirateke agertuko. Badakit politikoei politika egitea dagokiela eta, alde horretatik, ikastolen festak duen ohiartzunaz baliatzea ez da harri-garria. Dena den, kontuz ibili, telebista irudien bidez errealitatea aldatzea posible den bezala, igandetik argazkiak ere faltsuak izan daitezkeela frogatu dugulako.

Ez da ez, Madrilgo egunkari batek uztailaren 6ko argazki batean eginikoa bezain agerikoa. Udaltxe plazako argazki xelebre hartan agertzen ziren ikurrinei kolorea aldatu eta Aranarena espainiar bandera bihurtu zuten. Geroztik, adibideak ohorezko lekua lortu du manipulazioari buruzko liburuetan. Zangozakoak, aldiz, benetakoak dira, astelehenean egunkarietan ikusi genituen politiko guztiak hantxe zirelako. Baina, kontuz, irudia Sanferminetakoa bezain faltsua izan daiteke.

Pozgarria da, zinez, ikastolen festak lortu duen arrakasta. Ulerztekoa da, halaber, antolatzaileek bertaratzen diren politikoei argazki ofiziala eskaintzea, baina, tamalez, lehengo egunean ikusitako taldean euskaltzaleak ezezik euskararen aurkakoak ere ikusi genituen. Eskerrak batzuk etxean gelditu zirela, bertzenaz harrigarria izanagatik ere, euskararen aldeko festaren argazki ofizialean euskararen etsaiak nagusituko ziren.

gure aukerak

KONTZERTUAK

- **Barañain:** Jose Antonio Ramos musikariak folk kontzertua eskainiko du datorren ostegunean, 20:00etan, udaltxeke Erabilera Anitzetako aretoan.
- **Arantzaz:** Alboka taldearen emanaldia izanen da gaur 22:00etan, eskolan.

ZINEMA

- **Iruñea:** Datorren asteazkenean Richard Attenboughen *Un puente lejano* filma eskainiko da Ollite zinemán, 19:45etan. Ostegunean, berriz, Elia Kazanen *Al este del Edén* pelikula pantailaratuko da ordu eta toki berean.

ANTZERKIA

- **Iruñea:** Ados antzerki taldeak *Desperrados* lana eskainiko du etzi, Nafarroako Antzerki Eskolan, 20:00etan.
- **Zangoza:** Eslava taldeak *Bodas de sangre* lana antzeztuko du heldu den asteazkenean, 20:30etan, Karmengo Auditoriumean. Ostegunean, aldiz, *Usted puede ser un asesino* obra taularatuko du talde berak, ordu eta toki berean.
- **Orotz-Betelu:** T.E.N. Pinpilinpauza taldeak *Así son los animales* lana taularatuko du bihar, 21:00etan, frontoian.

ERAKUSKETAK

- **Atarrabia:** Amazonas garaia: bizitzeko beste era bat erakusketa ikusteko aukera dago Jubilatuen Etxean.

BESTELAKOAK

- **Iruñea:** Joseba Muñoz idazlea *Joan zaretenean* bere azken lanaz mintzatuko da datorren ostegunean, NUPeko 106 gelan, 18:00etan.

- **San Adrian:** Udalak San Adrian-go IV. Pop-rock Lehiaketa antolatuko du. Parte hartu nahi duten taldeek kasetaz gain, taldeko baten helbidea, izena eta telefonoa aurkeztu behar dituzte. Lanak azaroaren 20a baino lehen bidali behar dira herriko kultur etxera, ondoko helbidera: Vera Magallon plaza z/g. 31570.
- **Iruñea:** Gorosti taldeak mikologi erakusketa antolatuko du etziko Oberena Kirol Elkartearen egoitzan. Erakusketa

10:00etatik 15:00ak arte izanen da zabalik.

- **Atarrabia:** Julio Basterretxeak eta Alex Urdanozek Amazonas garaia buruzko diapositiba emanaldia eskainiko dute Jubilatuen Etxean, datorren ostegunean, 19:30etan.
- **Iruñea:** Anjel Lertxundi idazleak *Munduaren neurria* izenburuko hitzaldia eskainiko du asteartean, 20:00etan, Erraldoten Txokoan.
- **Iruñea:** Nafarroako Gazte Kontseiluak *Hiesa eta prebentzioa*

komiki lehiaketa antolatuko du. Hamasei urtetik 30 urtera bitarteko gazteek parte hartu ahal izanen dute, baldin eta Nafarroan bizi badira. Lanek aurrean proposatutako gaia izanen dute, eta euskaraz zein gaztelaniaz aurkeztuko dira. Partehartzaile bakoitzak bi lan aurkeztu ahal izanen ditu ondoko helbidera: Zangoza kalea 30, 2. solairua, 31003, Iruñea. Informazioa 948-23 4819 telefonoan.

Harri Fiction

Urdirzo-Lacostini



EMGLY
Z A P A T A K

Ni naiz Inor Ez. Nor zara zu? Zu al zara Inor Ere Ez? Honez gero Inor Ere Ez pare bat gara. Ez esan ozenki. Zabalduko lukete. Zein lotsaemangarria norbait izateal Plazagizona izatea, igelak bezala! Animaleko Uztailan, putzu lohitsuán, zure izena errepika ibil beharra! Kroa, Kroa, Kroa, Kroaka.